

BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA: LITERATURA SARIAK

Bilbo, egoitza, 2004-XII-10

2004ko abenduaren 10ean, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak batera antolatzen dituzten eleberrri, antzerki, olerki eta saiakera-sarien irabazleen izenak jakinarazi ziren. Sari-ematea Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, egin zen.

Ondoko hauek izan ziren 2004ko deialdiaren irabazleak, sariak eta epaimahaikideak:

- **Txomin Agirre eleberrri-saria:** Juan Jose Ispizua Hormaetxea. Lana: *Harizpeko neskaren afera*
Saria: 8.000 euro.
Epaimahaikideak: Maria Jose Olaziregi, Txomin Peillen eta Ana Toledo.



- **Toribio Alzaga antzerki-saria:** Pantxo Hirigarai. Lana: *40 urteak*
Saria: 5.000 euro.
Epaimahaikideak: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
- **Felipe Arrese Beitia olerki-saria:** Aintzane Galardi Portu. Lana: *Itoti urdinaren azpian*
Saria: 5.000 euro.
Epaimahaikideak: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.
- **Mikel Zarate saio-saria:** Xabier Agirre Urteaga. Lana: *Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun?*
Saria: 6.000 euro.
Epaimahaikideak: Aurelia Arkotxa, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

Esan bezala, sari-ematea Euskaltzaindiaren egoitzan egin zen, Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren gidaritzapean. Harekin batera, Gorka Martinez BBK-ren Fundazioko burua, Joserra Bilbao BBK-ren Elebitasun Zerbitzuburua eta Txomin Peillen euskaltzaina eta Literatura Ikerketa azpibatzerdeko ki-dea izan ziren.

Lau sari nagusiak iragarri ziren ekitaldi berean, epaimahaikideek sari guztiak emateko arrazoia azaldu zuten. Hala bada, Txomin Agirre sariaren epaimahaikideen izenean, Txomin Peillenek

misteriozko gertakariak kontatzeko eta ez kontatzeko orduan –isiltasuna oso garrantzitsua baita– idazleak erakutsitako maitasuna

azpimarratu zuen, Juan Jose Ispizuaren *Harizpeko neskaren afera* izeneko eleberrian.

Toribio Alzaga antzerki sariaren Patri Urkizu epaimahaikidea, aldiz, horrela mintzatu zen Pantxo Hirigaraiaren *40 urteak* lanaz:

40 urteak antzerkia oso barrutik ezagutzen duen pertsona baten lana dela antzeman genuen berehala. Trufa eta seriotasuna oso ongi nahasten ditu eta gainera, oso euskara bizia du.

Ondoren, Lourdes Otaegik hartu zuen hitza, Aintzane Galardiren *Itoti urdinaren azpian* lanaz jarduteko:

Urruntasunari, nostalgiari eta mugagabetasunari buruzko poemak biltzen dituen lana

dela esateaz gain, abangoardiako obratzat jo zuen Otaegik,

letra moten baitan egindako eraldaketa piktorikoagatik ere. Oso testu artistikoa da. Edukia, berriz, franko iluna da: desolazioa, mina eta iruditeri onirikoa nagusitzen dira.

Xabier Agirreren *Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun?* liburuaren kasuan, berriz, Adolfo Arejitak irakurri zuen Antton Aranburuk idatzitakoa:

Askatasuna eta berdintasuna kontzeptu filosofiko gisa aztertu ondoren, gaurko pentsamendu politikoaren kezka eta erronka nagusi den pluralismoaren kudeaketa da liburuko aztergai berezietako bat. Bi horien ondoren, giza eskubideak dira hirugarren kontzeptu nagusia. Demokraziaren oinarri teoriko baterako hurbilpen bat genuke liburua; halaber hurbilpen teorikoa, egile beraren ondorengo lanen batean aipatu kontzeptu guztiok egungo errealitatean nola aplikatu daitezkeen ikusteko zain.

BIGARREN SARIA

Horren ostean, Joserra Bilbaok hartu zuen hitza eta zera adierazi:

Sariketa guzti hauek, idazle berriak ezagutzera emateko balio izan dute eta lehenengoz sarituak izan diren asko, gero euskal literaturako izen handi bihurtu izan dira. Adibiderik ez dut aipatuko, sarritan egin izan dugulako, baina euskal literaturako egile handienak hantxe agertzen dira eta zuei ere gauza berbera opa dizuet, hemendik urte batzuetara Euskal Herriko idazle handi bihurtu zaitezten.

Bestalde –esan zien saridunei– kontuan izan, irabazi duzuen sariketa hau ez dela edozein sariketa, zeren batetik, Euskaltzaindiaren izena baitaroa, euskal erakunde gorenarena, eta bestetik, epaimahaikoek nortzuk diren ikustea baino ez dago, sari hori ez dizuela edonork eman jakin dezazuen.

Bukatzeko, aurretiaz Joserra Bilbaok egin bezala, saritutako lanak argitaratzen direla gogora ekarri zuen Jean Haritschelharrek:

Nik uste dut idazle batentzat, lehenik sari bat ukaita eta gero, ikustea bere liburua publikatua, argitua, beretzat, hori bigarren sari bat da.

BBK-EUSKALTZAINDIA:
R. M. AZKUE LITERATURA SARIKETA

Bilbo, egoitza, 2005-III-02

2005eko martxoaren 2an, Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, 2004ko Resurreccion Maria Azkue Literatura sariak irabazi zituzten idazle gazteen izenak jakinarazi ziren, baita sariak banatu ere. Gauza jakina denez, Euskaltzaindiak berak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten sari hauek idazle gazteak literatura mundura erakartzeko asmoz sortuak dira.

Hauxe izan zen edizio honetako partaidetza kopurua:

A mailan, narrazioan: 79 lan.

A maila, olerkian: 33 lan.

B maila, narrazioan: 96 lan.

B maila, olerkian: 47 lan.

EPAI MAHAIKOAK

Urtero bezala, aurtun ere literatura eremuko pertsona adituek osatu dituzte epaimahaiak, beti ere Euskaltzaindiak izendatuta. Aurtengo epaimahaikoak hauek izan dira:

A mailan: Igone Etxebarria Zamalloa, Manu Lopez Gaseni eta Amagoia Lopez de Larruzea Zarate.

B mailan: Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Kirmen Uribe.

SARIDUNAK

A mailako epaimahaikoek honako sariak emateko erabakia hartu dute:

Narrazio alorrean

– Lehen Saria: *Ama*. Egilea: Enma Arestegi (Hazparne, Lapurdi). Kanboko Xalbador ikastetxeko ikaslea da. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune.

- Bigarren Saria: *Denboran barrena*. Egilea: Laida Zabala (Donostia, Gipuzkoa). Donostiako Lauaizeta ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Maria Eugenia Lozano.
- Hirugarren Saria: *Patuaren menpe*. Egilea: Sara Insausti (Ordizia, Gipuzkoa). Urdaneta eskolako ikaslea. Laguntzailea: Maixabel Aristimuño.

Olerki alorrean

- Lehen Saria: *Bihotza uhinetan, uhinak bihotzean*. Egilea: Enma Ares-tegi (Hazparne, Lapurdi). Kanboko Xalbador ikastetxeko ikaslea. Laguntzailea: Pruden Sudupe.
- Bigarren Saria: *Hegoa (Ilobaño zenduari)*. Egilea: Lorea Sabarots (Hiriburu - Lapurdi). Kanboko Xalbador Kolegioko ikaslea da. Laguntzailea: Pruden Sudupe Azkune.
- Hirugarren Saria: *Soka artean*. Egilea: Iraitz Ugalde (Lezo, Gipuzkoa). Lezoko Institutuko ikaslea. Laguntzailea: Jon Puy.

B mailako epaimahaiakoek, berriz, honako erabakiak hartu dituzte:

Narrazio alorrean

- Lehen Saria: *Triste nago*. Egilea: David Fernandez (Santurtzi, Bizkaia). Asti Leku ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Victoria Fernandez.



- Bigarren Saria: *Askatasunak larrosa usaina du, baina...* Egilea: Garazi Ansa (Oiartzun - Gipuzkoa). Haurtzaro ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.
- Hirugarren Saria: *Harresi gorriak*. Egilea: Antton Alberdi (Elgoibar, Gipuzkoa). Elgoibar Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikaslea. Laguntzailea: Andres Alberdi.

Maila honetan, epaimahaikoek ondoko lanak argitaratzeko gomendioa eman dute:

- *Ispilu atzeko deabrua*. Egilea: Amaia Rodriguez (Bergara, Gipuzkoa). Aranzadi ikastolako ikaslea.
- *Mugagabearen mugatasun irreal*. Egilea: Ane Badiola (Oiartzun, Gipuzkoa). Haurtzaro Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.

Olerki alorrean

- Lehen Saria: *Engoitik Ithakan*. Egilea: Miren Estibaliz Vivanco (Bilbo, Bizkaia). Lauro Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Leire Arantzamendi.
- Bigarren Saria: *Bakarrizketan diharduten zuhaitzetako hosto lehorrak*. Egilea: Olatz Mitxelena (Oiartzun, Gipuzkoa). Haurtzaro Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.
- Hirugarren Saria: *Aspaldi alde egindako eta oraindik gogoan dudan aitonari*. Egilea: Haritz Casabal (Pasai Antxo, Gipuzkoa). Pasaia-Lezo Lizetako ikaslea. Laguntzailea: Julen Ezkurdia.

Epaimahaiko kideek ondoko lanak argitaratuak izatea eskatzen dute:

- *Itsas aparrak narama*. Egilea: Garazi Ansa (Oiartzun, Gipuzkoa). Haurtzaro Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.
- *Nortasunaren saski oparoa*. Egilea: Ane Badiola (Oiartzun, Gipuzkoa). Haurtzaro Ikastolako ikaslea. Laguntzailea: Kontxi Begiristain.

Esan bezala, sari-emate ekitaldia Bilbon egin zen, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Gorka Martinez BBK-ren Fundazioko buruak eta Joserra Bilbao BBK-ren Elebitasun Zerbitzuruak parte hartu zutelarik. Bestalde, Igone Etxebarriak eta Jabier Kaltzakortak, epaimahaikideen izenean hitz egin zuten.

Horiek guztiek idazle gazteei zorionak eman eta animatu zituzten

–«Euskal Herriaren bazter eta lurralde guztietatik datoz idazle berri horiek eta euskarak duen bizitasunaren seinale argiak dira»,

esan zuten Euskaltzainburuak– eta hilabete batzuen buruan liburua argitaratu-
ko dela gogorarazi zien. Joserra Bilbaoren hitzetan,

«gogoratu, gaurkoa sariaren erdia baino ez dela. Beste erdia, hemendik hilabete
batzuetara hartuko duzue, Euskaltzaindiaren babesa duen liburu batean zuen lana
argitaratuta ikustean».

- f) Si bien se atenderá en primera instancia a las necesidades más urgentes del plan de normalización lingüística, se ofrecerá un servicio continuado.

2.- Procedimiento

- a) FEVE remitirá a Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca las denominaciones y los textos que serán objeto de esta colaboración.
- b) Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca, una vez cumplida la labor encomendada, comunicará el resultado a FEVE.
- c) Para dar cumplimiento a este cometido, y con el fin de agilizar en la medida de lo posible la labor de transmisión de datos se procurará, por todas las partes intervinientes, la utilización de las herramientas telemáticas más avanzadas que estén disponibles en cada momento.

3.- Financiación

El importe total de este asesoramiento continuo asciende, en lo que respecta al año 2005, a la cantidad de 6.000 euros, que FEVE abonará a Euskaltzaindia previa justificación de las actuaciones realizadas. Esta cantidad se revisará anualmente teniendo en cuenta los trabajos a realizar y el I.P.C. de la Comunidad Autónoma Vasca generado entre el uno de enero y el treinta y uno de diciembre del año inmediatamente anterior al periodo de vigencia del convenio.

4.- Plazo


Este convenio estará en vigor el 15 de junio de 2005 y tendrá una duración anual, pudiéndose prorrogarse tácitamente, por periodos anuales, salvo denuncia de las partes que deberá realizarse con un plazo de antelación mínimo de dos meses anteriores a la fecha de vencimiento.

5.- Seguimiento

Con el fin de llevar a cabo un seguimiento eficaz sobre el curso de los trabajos a realizar en el marco de este convenio, se creará una Comisión integrada por 2 personas de FEVE y 2 de Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca, quienes a su vez resolverán las posibles controversias que pudieran acontecer con motivo de la aplicación de lo aquí dispuesto.

En Bilbao, 15 de junio de 2005.


Andres Urrutia Badiola
Presidente de Euskaltzaindia


Dimas Sañudo Aja
Presidente de FEVE



INSTITUTO CERVANTES ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

BILDUAK

Alde batetik, CESAR ANTONIO MOLINA SANCHEZ jauna, Instituto Cervantesen zuzendaria, institutuaren izen eta ordezkaritzan, maiatzaren 14ko 1243/2004 Errege Dekretuaz izendatua izan zena (maiatzaren 15eko BOEn), Instituto Cervantes sortu zuen martxoaren 21eko 7/1991 Legearen arabera diharduela.

Bestetik, ANDRES URRUTIA BADIOLA jauna, euskaltzainburua, Euskaltzaindiaren izen eta ordezkaritzan, Bilbon 2004ko abenduaren 17ko bilkura berezian izendatua izan zena, otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuaz (martxoaren 25ko BOEn) onarturiko Euskaltzaindiaren Arautegiaren 9. artikulua arabera diharduela.

ADIERAZTEN DUTE

1. Instituto Cervantes irabazi asmorik gabeko erakunde publiko bat dela, Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioari atxikia. Bere sortze legearen 3. artikulua arabera, mundu osoan gaztelaniaren irakaskuntza, ikerketa eta erabilera sustatzea eta kanpoan kultura zabaltzea ditu xede. Institutuak batik bat gaztelania erkide duten herrialde eta populuen hizkuntza eta kultura ondarea hartuko duela kontuan dio, halaber, aipatu artikulua.
2. Euskaltzaindia erakunde zientifiko bat dela, lau Foru Aldundien ekimenez 1918an sortua eta otsailaren 26ko Errege Dekretuak aitortpen ofiziala emana (martxoaren 25eko BOEn), garai hartako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Ministerioari atxikia. Alde batetik, euskararen ikerketa eta arautzea, eta, bestetik, sustapena eta babesa ditu helburu.
3. Euskaltzaindia haste-hastetik egon dela kanpora begira, eta horren adibide dira, bereziki, kide ez euskaldunak, mundu zabalean ezagunak izan diren hizkuntzalari eta filologoak, hala nola Hugo Schuchardt, Julien Vinson, Christianus Cornelius Uhlenbeck, Ramón Menéndez Pidal, Américo Castro, René Lafon, Joan Coromines, Antonio Tovar, André Martinet, Jacques Allières, Nils Holmer, Rudolf de Rijk edo Robert L. Trask.
4. Hala Instituto Cervantes nola Euskaltzaindia ere jakitun direla hizkuntza eta kultura ondarearen aldeko lanak duen garrantziaz, batez ere iberiar jatorriko biztanleak dituzten herrialdeetan.
5. Instituto Cervantesez eta Euskaltzaindiak lankidetzaren marko bat ezarri nahi dutela, bakoitzaren jardura esparruan eta aukeren arabera, euskal hizkuntza eta kultura sustatzea duena helburu.

6. Instituto Cervantesen Administrazio Kontseiluak, 1995eko ekainaren 16ko batzarrean, beste erakunde akademiko batzuekin hitzarmenak sinatzeko irizpideak onartu zituela.

Horiek guztiak kontuan harturik, bi erakundeok hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute, ondoko klausula hauekin.

KLAUSULAK

Lehena. Hitzarmen honek erakunde arteko lankidetzeta bultzatzea du helburu, Instituto Cervantes eta Euskaltzaindiaren artekoa, euskal hizkuntza eta kultura bultzatzeko xedearekin, batez ere Espainiatik kanpo eta Instituto Cervantesen zentron bitartez.

Bigarrena. Instituto Cervantesek, bere zentron erabiltzaritasunaren arabera, eta aurretik Euskaltzaindiak eskaria eginez, tokia utziko du bere zentroetan, euskal kultura zabaltzeko jarduerak egin daitezzen, Euskaltzaindiak bere izenean bakarrik edo Instituto Cervantesekin batera antolatutak.

Horretarako, Euskaltzaindia Instituto Cervantesen Egoitza Nagusiko Kultura Zuzendaritzarekin koordinatuko da, beronen zentroetan kultura jarduerak egiteko bideragarritasuna aztertzeko xedearekin. Jarduerok gauzatzea Instituto Cervantesen zentroetan horretarako tokia izatearen mende izango da, eta betiere jarduera horiek zentron ikasketa edo kultura egitarauarentzat oztopo gertatzen ez direnean.

Hirugarrena. Instituto Cervantesek eta Euskaltzaindiak euskal hizkuntza eta kultura hedatzeko egitarauak bultzatzea erabaki ahal izango dute. Horretarako, Euskaltzaindiak Instituto Cervantesentzako aholkularitza lana egingo du, euskara irakaste eta hedatzeari dagokion orotan. Egitarauon helburuak, edukiak, diru iturriak eta kudeaketa, berriz, zortzigarren klausulan aurreikusitako Jarrailen Batzordeak proposatuko ditu, ekarrekin onartuko dira eta hitzarmen honen gehigarri-gai izango.

Laugarrena. Instituto Cervantes eta Euskaltzaindia bat datoz beren argitalpenak eta bibliografia informazioa trukatzear, bien onurarako direnean, bi erakundeek erabilpenerako dituzten baldintzen arabera.

Bosgarrena. Bi erakundeak bat datoz erabiltzaile guztiei beren katalogoetarako eta erakundeon gainerako zerbitzuotarako sarbide elektronikoak emateaz, bakoitzaren ahalen arabera eta beti ere, Erakunde biek adostutako baldintzetan.

Seigarrena. Instituto Cervantes eta Euskaltzaindia bat datoz beren egoitza nagusietan eta ordezkari-zetan hitzaldi, ikastaro, batzar eta abarretarako tokia lagatzeaz, bi erakundeon jarduerekin zer ikusia dutenean, edota elkarren interesgarri direnean, beti ere, ahalbideen arabera eta ohiko jardueren kaltetan gertatzen ez direnean.

Zazpigarrena. Hitzarmen honek bi urteko indaraldia izango du, eta iraupen bereko aldietan luzaio ahal izango da isilbidez. Hala eta guztiz ere, hitzarmena bertan behera gelditi daiteke, bi aldeetako edozeinek jarri den epea baino sei hilabete lehenago hala erabakitzen badu. Hitzarmena behar baino lehen amaituta ere, abian diren jarduerak ez dira kaltetuak gertatuko.

Zortzigarrena. Bi aldeek Jarrailen Batzorde bat eratuko dute, bakoitzaren hiruna kidez osatua. Instituto Cervantesetik, Kultura zuzendaria, zuzendari akademikoa eta Diplomen eta Kanpo Kudeaketaren zuzendaria izango dira; eta Euskaltzainditik, beriz, idazkaria, diruzaina eta lker sailburua. Jarrailen Batzorde horri dagokio hitzarmen honetan ageri dena betetzen dela begiratzea eta hirugarren klausulan aipagai diren gehigarriak proposatzea.

Bederatzigarrena. Hitzarmen hau izenpetzeaz ez du diru ekarpenik egitera behartzen. Dena dela, bertan agertzen diren jardueretarako diru ekarpenik egin behar balitz, bakoitzaren urteroko aurrekontu egoeraren arabera izango da.

Hamargarrena. Hitzarmen honek ez dakar berekin alde bakoitzak berezko dituen eskumenei uko egitea.

Hamaikagarrena. Hitzarmen honen bi aldeetako sinatzaileak fede on eta eragingarritasunez jokatuko dute, sinatutako hau behar bezala bete dadin.

Eta, bi erakundeak hitzarmen honetan azaldutako guztiarekin bat datozela adieraziz, hitzarmen honen lau ale sinatzen dituzte, bi gaztelaniaz eta bi euskaraz, aipaturiko tokian eta egunean.


Bilbon, 2005eko uztailaren 28an

INSTITUTO CERVANTESEN IZENEAN

EUSKALTZAINDIAREN IZENEAN



César Antonio de Molina Sánchez



Andrés Urrutia Badiola



CONVENIO DE COLABORACION ENTRE EL INSTITUTO CERVANTES Y LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA – EUSKALTZAINDIA

REUNIDOS

De una parte, el Sr. D. CÉSAR ANTONIO MOLINA SÁNCHEZ, Director del Instituto Cervantes, en nombre y representación del Instituto, que fue nombrado por Real Decreto 1243/2004, de 14 de mayo (BOE de 15 de mayo), y que actúa de conformidad con lo dispuesto en la Ley 7/1991, de 21 de marzo, por la que se crea el Instituto Cervantes.

Y de otra parte, el Sr. D. ANDRÉS URRUTIA BADIOLA, Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, en nombre y representación a esta Institución, que fue nombrado en la sesión extraordinaria celebrada en Bilbao el 17 de diciembre de 2004, y que actúa en conformidad con lo dispuesto en el artículo 9 de los Estatutos de esta Real Academia, aprobados por Real Decreto 573/1976 de 26 de febrero (BOE 25 de marzo).

EXPONEN

1. Que el Instituto Cervantes es un organismo público sin ánimo de lucro adscrito al Ministerio de Asuntos Exteriores y de Cooperación, que tiene como fin, conforme a lo dispuesto en el artículo 3 de su Ley de creación, la promoción universal de la enseñanza, el estudio y el uso del español y de la difusión de la cultura en el exterior. El mencionado artículo establece también que el Instituto atenderá fundamentalmente al patrimonio lingüístico y cultural que es común a los países y pueblos de la comunidad hispanohablante.

2. Que la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia es una institución científica, creada por las cuatro Diputaciones forales en 1918 y reconocida por Real Decreto 573/1976 de 26 de febrero (BOE 25 de marzo), adscrita al entonces Ministerio de Educación, Universidades e Investigación, y que tiene como fines, por un lado, la investigación y la normativización de la lengua, y por otro, su promoción y tutela.

3. Que la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia ha tenido desde sus primeros pasos una acusada proyección exterior, como lo prueban singularmente los nombres de miembros no vascos, que fueron lingüistas y filólogos de fama internacional, por ejemplo, Hugo Schuchardt, Julien Vinson, Christianus Cornelius Uhlenbeck, Ramón Menéndez Pidal, Américo Castro, René Lafon, Joan Coromines, Antonio Tovar, André Martinet, Jacques Allières, Nils Holmer, Rudolf de Rijk o Robert L. Trask.

4. Que tanto el Instituto Cervantes como la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia son conscientes de la relevancia que tiene el trabajo a favor del patrimonio lingüístico y cultural, principalmente en todos aquellos países con población de raíces ibéricas.

5. Que el Instituto Cervantes y la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia desean establecer un marco de cooperación con el fin de promover, dentro de su ámbito de actuación y sus posibilidades, la lengua y la cultura vascas.

6. Que el Consejo de Administración del Instituto Cervantes, en su sesión de fecha 16 de junio de 1995, aprobó los criterios para la firma de convenios con instituciones académicas.

En virtud de lo anterior, ambas partes manifiestan su voluntad de suscribir el presente convenio de colaboración que se regirá con arreglo a las siguientes

CLÁUSULAS

Primera.- El presente convenio tiene por objeto establecer el marco de cooperación institucional entre el Instituto Cervantes y la Real Academia de la Lengua Vasca, con la finalidad de promover la lengua y la cultura vascas sobre todo fuera de España, a través de los centros del Instituto Cervantes.

Segunda.- El Instituto Cervantes, en función de las disponibilidades de sus centros, y previa la solicitud del Euskaltzaindia, podrá ceder espacios en sus centros para la realización de actividades relacionadas con la difusión de la cultura vasca, organizadas por la Real Academia de la Lengua Vasca sola o en colaboración con el Instituto Cervantes.

Para ello, la Real Academia de la Lengua Vasca se coordinará con la Dirección de Cultura de la Sede Central del Instituto Cervantes, al objeto de estudiar la viabilidad de la realización de actividades culturales en los centros de éste. Dicha realización estará supeditada a la existencia en los centros del Instituto Cervantes de espacios al efecto, y siempre que las actividades no interfieran en la programación académica o cultural de los centros.

Tercera.- El Instituto Cervantes y la Real Academia de la Lengua Vasca podrán acordar la realización de programas que contribuyan a difundir la lengua y cultura vascas. Para ello, la Real Academia de la Lengua Vasca asesorará al Instituto Cervantes en todo lo referente a la enseñanza y promoción de la lengua vasca. Sus objetivos, contenidos, financiación y gestión serán propuestas por la Comisión de Seguimiento prevista en la cláusula octava, se aprobarán de común acuerdo y serán objeto de anejos al presente convenio.

Cuarta.- El Instituto Cervantes y la Real Academia de la Lengua Vasca se muestran de acuerdo para estudiar el intercambio de sus publicaciones, así como de toda la información bibliográfica que redunde en beneficio mutuo.

Quinta.- Ambas instituciones manifiestan igualmente su disposición a facilitar a todos los usuarios los accesos electrónicos a los catálogos y demás servicios de ambas instituciones, en las condiciones establecidas por las mismas para su utilización.

Sexta.- El Instituto Cervantes y la Real Academia de la Lengua Vasca expresan su disponibilidad a ceder los locales de sus sedes centrales y de sus delegaciones para cualesquiera conferencias, cursos, reuniones, etc., que tengan que ver con las actividades de cada institución o de mutuo interés, en función de sus disponibilidades y siempre que no alteren su normal funcionamiento.

Séptima.- Este convenio tendrá una vigencia de dos años, pudiendo ser prorrogado tácitamente por períodos iguales de tiempo. No obstante lo anterior, el convenio podrá ser denunciado por cualquiera de las partes con seis meses de antelación a la fecha en la que se pretenda finalizar el convenio. La resolución anticipada del presente convenio no afectará a las actividades en curso.

Octava.- Las partes crearán una Comisión de Seguimiento integrada por tres miembros de cada una de ellas. Por parte del Instituto Cervantes, serán miembros el Director de Cultura, el Director Académico y el Director de Diplomas y Gestión Exterior, y por parte de la Real Academia de la Lengua Vasca, el Secretario, el Tesorero y el Presidente de la Sección de Investigación. A esta Comisión de Seguimiento le corresponderá realizar el control del cumplimiento de lo establecido en el presente convenio y proponer la suscripción de los anejos a los que se refiere la cláusula tercera.

Novena.- La suscripción del presente convenio no implica aportación de recursos económicos. No obstante, para el caso en que la realización de alguna de las actividades previstas en él fuera necesaria la aportación de tales recursos, esa aportación estará supeditada a las disponibilidades presupuestarias de cada una de las partes para cada ejercicio.

Décima.- Este convenio no supone la renuncia de las partes a sus respectivas competencias.

Undécima.- Las partes firmantes del presente documento colaborarán en todo momento de acuerdo con los principios de buena fe y de eficacia, para asegurar la correcta ejecución de lo pactado.

Y, en prueba de conformidad, y para la debida constancia de todo lo convenido, las partes firman el presente convenio en cuatro ejemplares, dos en castellano y dos en lengua vasca, en el lugar y fecha indicados.


En Bilbao, a 28 de julio de 2005

POR EL INSTITUTO CERVANTES



César Antonio de Molina Sánchez

POR LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA - EUSKALTZAINDIA



Andrés Urrutia Badiola

BERRIAK

EUSKALTZAINDIA SALO DEL LLIBRE 2005ean

Ricardo Badiola eta Jon Artza

2005eko azaroaren 8tik 13ra, *I. Salo del Llibre de Barcelona* ospatu zen bertako erakustazokan. Antolatzaileak Kataluniako Editoreen Elkarte, Bartzelona eta Katalunia Liburutegien Elkarte eta *Fundación del Llibre* izan ziren. *Institut d'Estudis Catalans*-ek gonbita luzatu zion bai Euskaltzaindiari, eta bai *Consello de Cultura Galega*-ri ere, Liburu Azoka honetan parte har zezaten. Gonbita onartu ondoren, bertara eraman ziren Euskaltzaindiko argitalpenak erakusgai eta salgai. Horretaz gain, Euskaltzaindiko argitalpen zerbitzuko kide diren Ricardo Badiola eta Jon Artza bertan izan ziren azaroaren 10 eta 11n.

Euskaltzaindiak, bere katalogoaz gain, 60 argitalpen inguru izan zituen salgai, alegia, azken nobedadeez gain –*Nerekin jaio nun: Txillardegiri omenaldia*, Iker 17; *EGLU VI.: Mendeko perpausak (II)*– eta beste hainbat argitalpen aurkeztu zituen: *Euskal Izendegia*, *Hiztegi Batua*, literatura klasikoaren bildumakoak, literatura sariketakoak, EGLU bildumakoak, *Onomasticon Vasconiae*, Iker, Euskararen Lekukoak.... Nahiz eta salmentak ugariak ez izan, jende askok agertu zuen gure Erakundearekiko interesa, eta ondorioz, Erakundea hobeto ezagutarazteko baliagarria izan delakoan gara.

Honetaz aparte, Azoka hark, Institut d'Estudis Catalans (IEC) eta Euskaltzaindiaren artean diren harreman bikainekin jarraitzeko parada eman zuen. Estandera IECKo kide ugari hurbildu ziren: Intitut-eko burua den Salvador Giner; Ramon Corbella, kudeatzailea; Ramon Perello, komunikazio burua; Maria Rosa Franquesa, buruaren kabinete-arduraduna eta erakundeko hainbat langile. Antolakuntzaren ardura nagusia, Manuel Pascual, Institut-eko argitalpenen banaketa arduradunak izan zuen. Hauek guztiok, oso harrera ona egiteaz gain, Euskaltzaindiarekin elkarlanean jarraitzeko nahia erakutsi zuten.

**BILBAO BIZKAIA KUTXA-EUSKALTZAINDIA:
LITERATURA SARIAK**

Bilbo, egoitza, 2005-VI-30

BILBAO BIZKAIA KUTXA - EUSKALTZAINDIA LITERATURA SARIAK

Ekainaren 30ean, 2004. urtean saritutako lau literatura-lanen argitalpenak aurkeztu ziren, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatu zuten ekitaldian. Ondoko hauek dira 2004ko deialdian saritu ziren idazleak eta literatura lanak:

- **Txomin Agirre eleberri-saria:** Juan Jose Ispizua Hormaetxea. Lana: *Harizpeko neskaeren afera*.
- **Toribio Altzaga antzerki-saria:** Pantxo Hirigarai. Lana: *40 urteak*.
- **Felipe Arrese Beitia olerki-saria:** Aintzane Galardi Portu. Lana: *Itoti urdinaren azpian*.
- **Mikel Zarate saio-saria:** Xabier Agirre Urteaga. Lana: *Zertan dira askatasuna eta berdintasuna gaur egun?*

Lau liburuak eskuan zituela, hauxe esan zuen Andres Urrutia, euskaltzainburuak:

Irabazleen lanak gorpuztuta, liburu bihurtuta, ikusten ditugu.

Ekitaldian, idazle guztiak izan ziren, Juan Jose Ispizua izan ezik. Hark idatzitako gutuna, Pello Telleria idazkariordeak irakurri zuen. Beste guztiek, aldiz, euren lanen gorabeherak azaldu zituzten.

Ekitaldiari amaiera emateko, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxak, bi erakundeok aspaldidanik antolatzen duten literatura lehiaketaren 2005eko deialdia kaleratu zuten. Horren berri emateaz gain, Joserra Bilbao, BBK-ren ordezkariak honela laburbildu zuen ekitaldiaren esanahia:

Euskal Akademiak eta BBK-k berrogeitaz urteak daroatzate sariketa hauekin eta gaurko ekitaldian, iazko liburuak eta aurtengo deialdia aurkeztu ditugu, beraz argi dago katea ez dela eten eta aurrera egiteko asmo sendoa dugula erakunde biok. Hala bedi.



HARIZPEKO NESKAREN AFERA
Txomin Agirre eleberri saria
Ordu parean irakurtzeko nobela poliziakoa

Juan Jose Ispizua

Munduan askotan legez, izkiriadore honek ezin du aldi berean leku guztietan izan. Letra xume eta labur hauek bidaltzen dizkizuet, beraz, eguzkia itsasoan itotzen ohi den lurraldetik, zeuon artean laster izango naizen esperantzarekin. Letrok ekialderantz, Bilbora etortzeko, egin duten bidean nitaz zuten oroimena galdu dutelakoan nago eta, sarri esan ohi denez, berezko bizitza hartu egilearen tiraniatik urrun. Badirudi idazleak lana burutu ondoren harekin izan duen lotura galtzen duela eta ezerezean geratu hurrengo eleberria idazten hasi arte. Eta horretan ere jardun dut.

Ahantz dezagun, bada, egilea eta erakutsi liburu berri hau. Gidoia balitz bezala aurkeztuko dugu:

Treanean zoaz Bilbotik Mundakara eta Muxikara heldu orduko begiak altxatzen dituzu eskuartean darabilzun liburutik. Leihoaren bestaldean, kristaletik asago, pertsona bat ikusten duzu liburu bat irakurtzen, nasako jarlekuan eserita.

Pertsona horrek begiak altxatzen ditu bere liburuko letretatik, tren-txartela ipintzen du orri artean, liburua itxi eta trenean sartzen da. Doinu leuna entzuten da bagoian. Ohizko musika, trenean. Eseri egiten da eta, liburuak eskuartean ditzutelarik, leihotik begiratzen ari dira. Urdaibain barrera doaz biak.

Harizpeko Neskaren Afera eleberria udako epeltasun geldoan denbora emateko dago eginda; trenean zoazela, trenaren zain zaudela,... zein arbola baten azpian minutuak igarotzeko aproposa. Ordu pare batetik hiru ordura. Hori da liburu hau irakurtzen eman daitekeen denbora, ez gehiagorik.

Orduan hasten da liburuaren denbora, filme baten antzera, Urdaibaiko mendietan:

Goizaldea, goizargia, iluna eta
linterna-argi bat arbola artean.

Busturiko *Artetxene* baserri errearen gainaldeko pagadiko orbela eta oinotsa. Gizon bat dabil harrien artean eskua sartzen, besoa sartzen, daroan linternaren argia Amaluraren zirrikituetan barneratzen. Ziza-hori uzta darama zumezko

saskian. Perretxikozale bat dugu eta goitizena ipiniko diogu: «Azkonar». Ezizena, zeren oso ezaguna baita Euskal Herrian.

Bakarrik zaudenean gertatu ohi den antzera, liburuko udazken epelean asitiro doa denbora goizargiak, eguzkiaren izpiek Urdaibaiko bailara umela urratu orduko.

Maitale batek bere maitea laztantzen, sosegatzen duen antzera gura izan dut nire Amalurra ferekatu liburu honetan azaltzen ditudan deskribapenekin. Lekuotan izan ditudan sentipenak –alegerak, garratzak, mingotsak zein pozgarriak– eta sentsazioak berberak sortarazi gura dizkiot irakurleari,... zertzeladatan.

Hasieran datu asko ematen zaizkio irakurleari harik eta zerraldo batekin egiten duen topo hiru haritzen azpian. «Azkonar» famatu hori da lehen kapituluko protagonista; baina bigarrenek aurrera beste bat dugu gure bidea zabaltzeko lana hartu duena: Priego Inspektorea, «Brigada Judizialekoa», berak esaten duenez.

José María Uzelay margolariaren kuadro baten sartu garela dirudi, *Urdaibaiko* udazkenean gertatzen baita guztia. Udazkena. Bertokoentzat udagoiena: hego haize sorgorrak, buruko aieneak hegaldatuaz, sentimenduak asintzen dituen aroa.

Euskal Herriko beste paraje maite asko ere agertzen dira: *Baztan* –Badi-rudi lekuaren izena esanda soilik galapan datozkidala oroimen ezpalak–, *Enkarterriak*, *Bilbo*,... baina bereziki *Urdaibaiko* paraje eta pertsonaiak. Adibidez, liburuaren azalean agertzen den *Izaro* uhartea.

Azaleko argazkian agertzen den *Izaro* uhartea bezala aurkitzen dugu zerraldoa: soila, biluzia eta ezezaguna. Ez naiz, baina, deskribapenetan luzatuko. Horretarako baitaude liburuan dabilizan pertsonaiak, euren arteko elkarizketak, mesprezuak eta joera ia irrazionalak.

Idazle guztien antzeranik nik neuk ere nahi dut liburu hau gustura irakur dezazuen, eguneko penak ordu pare batez ahaztu. Eta misteriozko eleberri poliziako hau irakurtzean plazerra sentitu dezazuen nahi dut.

Misterio bat argitu dizuet dagoeneko; hau da, azaleko argazkian *Izaro* agertzen dela. Harizpeko neska nor den jakitea, nor hil duen eta zergatik irakurlearen lana da dagoeneko.

Beste barik eta laster arte.

ITOTI URDINAREN AZPIAN
Felipe Arrese Beitia olerki Saria

Aintzane Galardi

Goethek *urdina* zeruaren, urruntasunaren, nostalgiaren eta mugagabetasunaren kolorea bezala definitu zuen, eta azken finean, *Itoti urdinaren azpian* ere, urruntasunari, nostalgiari eta mugagabetasunari buruzko poemak biltzen dituen lana duzu.

Beraz, kolore urdinaren presentzia nabarmena izango da poemarioan zehar.

Bestalde irudiek garrantzi berezia hartzen dute lan honetan, poemez gain argazki, marrazki eta margoak aurkituko baitituzu liburuan zehar. Grafiak ere leku berezia hartzen du zenbait poematan, letra moten baitan egindako eraldaketa pikturikoagatik. Guzti honengatik benetan eskertzekoa da Bilbao Bizkaia Kutxak eta Euskaltzaindiak poemarioa argitaratzerakoan oztoporik ez jarzea eta nire lana bere horretan, ilustrazioekin, argitaratzea. Bihotzez eskertzen diet, alde batetik ilustraziorik gabe lanak, nire uste apalean, galdu egingo zuelako eta bestetik ez dagoelako esan beharrik zeinen zaila den gaur egun poema liburu bat koloretako irudiekin argitaratzea.

Edukiari dagokionez, abenduaren 10ean epaimaiko Lourdes Otaegik edukia definitzerakoan franko iluna zela zioen eta erabat ados nago berarekin: desolazioa, mina, urruntasuna, nostalgia,... eta iruditeri onirikoa nagusitzen dira bertan.

Poemak 4 ataletan banaturik daude:

1. Puska urdinak: 17 puska galduak, urrunak,...
2. Tanta urdinak: 11 poema tanta...
3. Pintzelak, monokromia urdinak, limoi titiak eta eromen zantzuak:

Kolore desberdinez osaturiko paleta genuke atal hau, hots, 9 poemako paleta.

Hondoan ordea urdina agertuko da beti difuminaturik.

4. Min puskak tiritu urdinaren zain:

17 zauri, min puska tiritu urdinaren zain.

Eta azkenik, poema sorta honi amaiera emango dion hondarreko poema dugu *A speranza*, itxaropenaren alegoria izan daitekeena.

ZERTAN DIRA ASKATASUNA ETA BERDINTASUNA GAUR EGUN?

Mikel Zarate, saio saria

Xabier Agirre Urteaga

Utzidazue ekiten hitz joko zazar batez: *Plaza Barrian* gaudenez, hitz egin dezagun zerbait *barriaz*, esaterako, filosofiaren egoera berriaz.

Garai batean, ez oso aspaldi, demagun hogeita hamar bat urte, pentsalari gehienek bazuten edozein gertakariren aurrean lauzpabost lege soziologiko korapilo guztiak askatzeko. Tradizio marxistak, batzuei, azken muturreko gertakizunak ulertzeko baliabide ahalguztiduna ematen zien. Zela Asiako istiluren bat, zela munduko gosea edo pertsona-harremanak, dena oinarritzko injustiziaren baten ondorioz gertatzen zen. Bestetik, liberalismo ekonomikoak, modu inozo bezain arriskutsuan, argazkiaren positiboa erakusten zuen, historia askatasunaren gauzatze etengabea bailitzan.

Alde batetik, interpretazio-molde hauek berebiziko abantaila eskaintzen dute. Ez da gehiegi pentsatu behar eta, itxuraz, guztiak dauka azalpena. Zer gehiago nahi?

Alabaina, egoera honek pentsamenduaren alfertzea dakar. Errealitatea teoriara ongi moldatzen ez bada, ez da teoria aldatuko, errealitatea behartuko baizik, harik eta piezak ongi ezkondu arte, puzzlearen zeru urdin zabal hartan ukabil zartakoaz sartutako pieza bezalaxe.

Baina errealitatea burugogorra da. Ez da ispilu bakarrekoa, ezta filosofia alferkerian geratzen den horietakoa ere. Pentsamendu politikoak, hortaz, aurrera egin zuen, John Rawls mugarri lanetan. Bertsio rawlsiarrean, liberalismoa berdinzalea izan zitekeen, eta ez kapitalismoaren justifikatzaile soila. Hor-tik aurrera ekin zioten polemikek beste hainbat ardatzeko gai ekarri zuten begi-bistara, horien artean betiko galdera hau: zer gara gehiago, gizabanakok ala komunitate bateko pertaideak?

Galdera honentzat ez dago erantzun garbirik, baina bitartean beste hainbat korapilo sortzen dira, askatzeko edo, gutxienez, gordiarak ez izateko. Gogoan izan: korapiloa ezin askatu, eta *ezpataz* eten zuen uztarria eta lantza lotzen zituena soka Alexandro Handiak. Korapilo horien inguruan bueltaka eguneroko-

tasuneko beste hainbat kezka sortzen da: abertzaletasuna, giza eskubideak, berdintasun materiala,... Bakoitzetik bada errazio txikirik liburu honetan.

Muturreko liberalismoak ez du giza talderik ikusten eta gizartea komentzia hutsagatik biltzen dela dio. Ez da konturatzen erabilgarritasuna baino zerbait gehiago dagoela jendearen motibazioan, eta, hori dela-eta, giza taldeen eskari gehienak aintzat hartzekoak direla (sarraskia muga), baita nazio-estatu modernoarekin talka egiten dutenak ere.

Berdintasun materialean Rawls ez ezik, Norberto Bobbio ere aritu da zatak. Bietatik eta beste batzuen ekarpenetatik filosofia politikoak (ez FMik, ez Mundu Bankuak) gai honetan aurreratu duena ere orriotan biltzen da.

Bestalde, giza eskubideen garaian gaudela-eta, etika unibertsal moduko bat lortu dugula ematen du. Juan San Martin erkide eta euskaltzain gogoangarri zendu berriak hainbeste estimatzen zituen giza eskubideek eman dute, ordea, eman ahal zutena, seguru aski. Erreferentzia unibertsal gisa balio dute, baina ez indarrez inon inposatzeko. Gainera, filosofikoki edozein etika unibertsalen arazo bertsuak dituzte giza eskubideok, eta horietaz ere ari da liburua.

Egoera benetan berrian gaude, beraz. Filosofia ohartu da errealitateak alderdi guztietatik gainditu egin duela, eta zaila egiten zaiola zerbait proposatzea, zerbait sinesgarria, gutxienez. Erdibide honetan atzera begiratuta, gauza askok zaharkituak dirudite, baina aurrera begiratuta, ez da ezer ikusten, iluntasuna dago.

Horregatik, gaur, hemen zerbait *barriaz* hitz egitea tokatu zaigu. Hemen-dik aurrera filosofiak duen lana hain da handia, ezen, Wittgenstein-ek bere *Tractatusa* bukatu zuen bezalaxe, hobe baita orain isiltzea. Ez betirako, ordea.

Eskerrik asko.

40 URTEAK

Toribio Altzaga, Antzerki Saria

Pantxo Hirigarai

Lehen-lehenik erran nahi dut barnaki hunkitzen nauen ohore bat bezala hartzen dudala Euskaltzaindiak eskaini dautan *Toribio Altzaga* sari hau. Sakonki hunkitzen nau, *40 urteak* antzerkiaren idaztea ere sakonki bizi izan dudalako. Atxikimendu berezi eta tinkoa daukat lan hunentzat arrazoin desberdinentzat. Hauetarik bat da, dudarik gabe, aintzinetik idatziak nituen antzerki moldeen ildotik osoki desbideratzen dela. Besteak umorean eta jakinminean oinarrituak ziren, komedia polizialen sailekoak, hau autobiografikoa da, parte haundiz eta biltzen ditu lagunek eta nik iragan ditugun garai zail eta bitxiak. Garai bitxiak edo, beste moduz erraiteko, urte nahasiak, bihotzeko min ikaragarritz eta ordu bozkariotsuz nahastekatuak izan baitira. Berexketak, eritasuna, heriotzak eta zoritxar haei buru egiteko gogo azkarra, bizitzeko nahi errabiatu bat eta zaurien mina eztiarazi nahiz, zorionaren eguneroko egarri eta bilaketa.

Gutarik hiru lagun 40 urteren ospatzeko antolatuta ditugun besta erraldoiak, alta ekaitzaren begian ginelarik gehien-gehienak, izan dira zorion bilaketa horren ispilu edo mirailak. Zailtasun eta duda-muda handienak ekarri dauzkit lan hunek, idazten nuen lerro bakoitz, nere buruari erraiten bainion ez zuela baliorik, edo guttienez zentzugabea zela, zergatik behar nuen denen aintzinean buluzi, nere eta nere lagun sendimendu eta sofrimenduak plazaratu. Eta azkenean zer axola zuten besteek gure gora beheretaz, bakoitzak baititu bereak. Hamar aldiz, ehun aldiz, uzteko eta ordu arte idatzia zakar untzirat botatzeko punduan nintzen, baina arrazoin nagusi batek daut segitzeko gogoa eman: antzerki hortan agertzen delakotz duela bi urte, eritasunak eremanik, galdu dutan nere lagun mina, *Babi* deitzen ginuena, Babi Bidart- antzerkian *Xabi*- eta azkenean, hain eskas dudan adixkide huni omenaldi bat bezala hartzen dut lan hau.

Mila esker beraz Euskaltzaindiari, bere sariak erakutsi bait daut balio zerbait baduela *40 urteak* antzerki hunek eta aparteko sustengu huni esker, hau taulen gainean agertzeko gogoa eman dautalakotz! Horri bi abantail edo alde on ikusten dizkiot: Lehenik, lau urte huntan lo dagon *Xirrixti Mirrixti* gure antzerki taldea iratzararaziko eta berriz lanean araraziko duela, eta oroz gainetik, *Babi* nere lagun zena berpiztaraziko duela emanaldi guziz, beste baten laruan izanen balin bada ere.

Milesker bihotz bihotzetik.